

BANAKETA KANALAK ETA KOMUNIKAZIOA

Gure bezeroekin aplikazio baten bidez funtzionatuko dugu: bertan **txat** bat egongo da, edozein arazo izanez gero ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko, eta zenbait albiste eta berri notifikatzeko leku bat. Gainera, gure bezeroei jakinarazpenak bidaliko dizkiegu haien bidaia has dezaten, horrela, komunikazioa eta jakinarazpenak indartuko ditugu. Honen bidez egongo gara kontaktuan gure erosleekin. Gainera, gure kanal mota **zeharkakoa** da, izan ere, on line “salduko” dugu gure produktua (aplikazioa) eta bitartekariak izatea saihestuko dugu.



Azpimarratu beharra dago, gure helburua garraibide sistema ahalik eta erraz eta intuitiboena izatea nahi dugun hortan, **garrantzi berezia emango diogula gure bezeroekin dugun harremanari**, eta adi egongo garela beren esperientzia ahalik eta hoberena izan dadin. Horretarako, orain aipatu berri ditugun baliabideak erraztuko dizkiegu gure bezeroei, gure aplikazioan haien esperientzia ezinhobea eginez.